Eskurapen-unearen ondoren sortutako finantza-aktiboen interesak, baldin badaude, sortzapen-aldiaren arabera kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz. Inbertsio berankor, zalantza edo auzipekoen interesak, beriz, kobratzen direnean erregistratzen dira. Finantza-aktiboen zorrorik datozen interesen periodifikatzea balantzeko aktiboko "Finantza-inbertsioen zorroa - Inbertsio-zorroko interesak" epigrafean erregistratzen dira. Kontu horren kontrapartida galdu-irabazien kontuko "Finantza-sarrerak" epigrafean erregistratzen da.

Beste sozietate batzuetatik jasotako dibidenduak, behar denean, sarrera gisa aitortzen dira galdu-irabazien kontuko "Finantza-sarrerak" epigrafean, hain zuen Fondoak horiek jasotzeko eskubidea sortzen den uanean.

##### *ii. Komisioak eta antzeko kontzeptuak*

Aurrez jasandako komisioak ostera-lagatzearen ondorioz Fondoak zuzenean edo zeharka jasotzen dituen sarrerak, dagokionean, galdu-irabazien kontuko "Inbertsio Kolektiboko Erakundeei ostera-lagatako komisioak" epigrafean erregistratzen dira.

Gestioaren eta gordailutzearen ondoriozko komisioak eta Fondoaren jardunerako beharrezkoak diren beste gestioko gastu batzuk izaeraren arabera erregistratzen dira, galdu-irabazien kontuko "Beste utsiapen-gastu batzuk" epigrafean.

*iii. Arrazoizko balioaren aldakuntza finantza-tresnetan*

Finantza-aktibo eta -pasiboen arrazoizko balioaren aldakuntzaren ondoriozko irabazia edo galera, egindakoa edo ez, Fondoaren galdu-irabazien kontuko "Finantza-tresnak besterentzeagatiko narriadura eta emaitza" eta "Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntza" epigrafeetan erregistratzen da.

*iv. Finantzarioak ez diren sarrerak eta gastuak*

Sortzapen-irizpidearen arabera jasotzen dira kontabilitatean.

Sarrerak eta gastuak sortu diren epealdian kontabilizatzen dira, benetan noiz kobratu edo ordaindu diren kontuan hartu gabe.

**c) Zordunak**

Hasierako balioztapena arrazoizko balioan egiten da, eta, kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa izango da. Prezio hori kalkulatzeko, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehitzen zaio zuzenean egoztekoak diren transakzio-kostuei.

Osteko balorazioa amortizatutako kostuan egiten da. Sortutako interesak interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz kontabilizatzen dira galdu-irabazien kontuan. Edonola ere, urtebete baino lehen jasotzea espero diren kontu-sailak balio nominalaren arabera balioztatzen dira.

Kobratzeko kontu-sailen balioa narriatzeagatiko galerak kalkulatzeko, balioetsitako etorkizuneko eskudiru-fluxuak hartzen dira aintzat, aitorpena egitean kalkulaturako interes-tasa efektiboan deskontatuta. Narriaduraren ondoriozko balorazio-zuzenketak eta lehengoratzeko gastu edo sarreratzat hartzen dira galdu-irabazien kontuan.

**d) Finantza-inbertsioen zorroa**

Finantza-inbertsioen zorroko aktiboak galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan kategorian sartzen dira. Segidan, zorroko finantza-produktu nagusiak eta horien arrazoizko balioa deskribatuko ditugu:

- Zorra adierazten duten baloreak. Jaulkitzailearentzat zorra eragiten duten baloreak dira, eta sortzen duten interesa kontratu bidez finkatzen da.

Kotizatutako zorra adierazten duten baloreen arrazoizko balioa merkatu bateko kotizazio-prezioetan oinarrituz zehazten da, baldin eta merkatu hori aktiboa bada eta prezioak modu tinkoan lortzen badira. Kotizazio-preziorik erabilgarri ez dagoenean, arrazoizko balioa transakzioaren

prezio berrienarekin dator bat, baldin eta transakzioaren unetik baldintza ekonomikoetan ez bada aldaketa handirik gertatu.

Zor-tresnarako merkatu aktiborik ez badago, balioztapen-teknika hauek erabiltzen dira: bitartekariak, jaulkitzaileak edo informazio-hedatzaileak emandako prezioak; alderdi interesdunen artean elkarrekiko independentziaz eta behar bezala informatuta egindako merkatuko oraintsuko transakzioak (eskuragarri badaude); funtsean bera den beste tresna baten egungo arrazoizko balioa; edo, dagokionean, fluxuen deskontu-ereduak eta aukeren balioztapenak.

Kobratu ez diren eta zorra adierazten duten baloreek sortutako interesak interes-tasa efektiboaren arabera periodifikatu eta ekitaldiko emaitzen artean sartzen dira.

- Ondare-tresnak. Beste erakunde batzuek jaulkitako finantza-tresnak (akzioak eta partaidetza-kuotak, adibidez), jaulkitzailearentzat kapital-tresnen izaera badute.

Kotizatutako ondare-tresnen arrazoizko balioa balantze-eguneko edo, bestela, aurreko laneguneko itxierako kanbio ofizialak finkatzen du, eta, itxierako prezio ofizialik ez badago, haztatutako batez besteko kanbioak.

- Kreditu-erakundeetako gordailuak. Fondoak kreditu-erakundeetan dituen gordailuak, "Altxortegia" epigrafean jasotako saldoak salbu.

Inbertsioaren barne-errendimendua une bakoitzean merkatuan indarrean dauden tasekin parekatzen duen zenbatekoa hartzen da arrazoizko balioztat.

- Erreferentziazko eguneko likidazio-balioaren edo kotizazio-balioaren arabera ezartzen da horien arrazoizko balioa. Erreferentziazko egunerako ez bada likidazio-baliorik kalkulatu, eskura dagoen azken likidazio-balioa erabiliko da. Inbertsio Askeko Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan, Inbertsio Askeko Inbertsio Kolektiboko Erakundeen Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan eta atzerriko antzeko Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan inbertitzeko, behar denean, estimatutako likidazio-balioak erabiltzen dira.
- Deribatuak. Barne hartzen ditu, besteak beste, gerokoen eta forwarden kontratuetako balio-aldeak, erositako edo jaulkitako warrant eta aukerengatik kobratutako nahiz ordaindutako hobariak, finantza-trukeko kontratuei lotutako kobrantza edo ordainketak eta egituratutako produktuetako inbertsioak.

Erreferentziatzeko egunaren itxierako truke-balio ofizialak zehazten du haren arrazoizko balioa. Antolatutako merkatuetan negoziatu ez direnentzat, CNMVren 6/2010 Zirkularrean eta ondorengo aldakuntzetan ezarritako baldintzen arabera balioztapen-eredua ezartzen du Sozietate Gestoreak.

Inbertsioa nabarmen eta konpontzeko modurik gabe narriatzen zaizkien aktiboetara baja emango zaie, galdu-irabazien kontuaren kargura.

Finantza-aktibo eta -pasiboetara horien jabeagoak berezkoak dituen arrisku eta onura guztiak intsuldatzen direnean ematen zaie baja balantzearan.

#### **e) Aktiboen aldi baterako eskurapena eta lagapena**

Aktiboen aldi baterako eskurapenak edo osterara lagatzeko akordiodun eskurapenak despoltsatutako zenbateko efektiboaren arabera kontabilizatzen dira, dagokien aktiboen kontuan, azpian dituzten tresnak edozein direlarik ere.

Kopuru horren eta osterara-lagapenaren prezioaren arteko aldea galdu-irabazien kontuan egozten da sarrera moduan, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz.

Arrazoizko balioen arteko aldea galdu-irabazien kontuko "Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntza" epigrafean egozten dira.

Aldi baterako eskuratutako aktiboaren lagapen irmoa finantza-pasibo gisa erregistratzen da, galdu-irabazietan aldaketak dituen arrazoizko balioan.

#### **f) Ondare-tresnak**

Kotizatutako ondare-tresnak kontratatzean erregistratzen dira, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioan; zuzenean eragiketari egoztekoak diren transakzio-kostu esplizituak ere hartzen dira kontuan.

Aktibo horien arrazoizko balioan gertatutako aldaketen ondoriozko aldeak honela jasotzen dira galdu-irabazien kontuan: alde negatibo edo positiboak "Finantza-tresnak besterentzeagatik nariadura eta emaitza" edo "Barruko edo kanpoko zorroko eragiketen ondorioz finantza-tresnen arrazoizko balioan gertatutako aldakuntzak" epigrafeetan erregistratzen dira, likidatu diren ala ez aintzat hartuta. Kontrapartida moduan, balantzeko aktiboaren barruko nahiz kanpoko zorroko "Ondare-tresnak" epigrafea erabiltzen da.

#### **g) Zorra adierazten duten baloreak**

Zorra adierazten duten baloreak likidatzean erregistratzen dira, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioan; zuzenean eragiketari egoztekoak diren transakzio-kostu esplizituak ere hartzen dira kontuan.

Aktibo horien arrazoizko balioan gertatutako aldaketen ondoriozko aldeak honela jasotzen dira galdu-irabazien kontuan: alde negatibo edo positiboak "Finantza-tresnak besterentzeagatiko nariadura eta emaitza" edo "Barruko edo kanpoko zorroko eragiketen ondorioz finantza-tresnen arrazoizko balioan gertatutako aldakuntzak" epigrafeetan erregistratzen dira, likidatu diren ala ez aintzat hartuta. Kontrapartida moduan, balantzeko aktiboaren barruko nahiz kanpoko zorroko "Zorra adierazten duten baloreak" epigrafea erabiltzen da.

#### **h) Deribatuetako eragiketak, finantza-trukeak kanpo utzita**

Deribatuetako eragiketak oroipen-kontuetan dagokien epigrafean erregistratzen dira, kontratatzen direnean eta posizioa itxi arte edo kontratua mugaeguneratu arte. Konprometitu den zenbatekoa idazten da.

Berme gisa gordailututako fondoak, lagatako gordailu gisa hartzen dira kontabilitatean, eta balantzeko aktiboko "Zordunak" epigrafean dagokien atalean erregistratzen dira.

Bermetan emandako baloreen arrazoizko balioa oroipen-kontuetan erregistratzen da, "Inbertsio Kolektiboko Erakundeak berme gisa ekarritako baloreak" epigrafean.

Erositako edo jaulkitako aukeren ondoriozko primak balantzeko aktiboko edo pasiboko "Deribatuak" epigrafean jasotzen dira, eragiketa egin zen datarekin.

Aktibo horien arrazoizko balioan gertatutako aldaketen ondoriozko aldeak honela jasotzen dira galdu-irabazien kontuan: alde negatibo edo positiboak "Deribatuetako eragiketen emaitzak" edo "Deribatuetako eragiketen ondorioz finantza-tresnen arrazoizko balioan gertatutako aldakuntzak" epigrafeetan erregistratzen dira, likidatu diren ala ez aintzat hartuta. Kontrapartida moduan, balantzeko aktiboko edo pasibo korronteko barruko nahiz kanpoko zorroko "Deribatuak" epigrafea erabiltzen da.

2018ko abenduaren 31n, Fondoak deribatuetako eragiketak ditu zorroan.

#### **i) Konpromiso-kontuak**

CNMVren 2010eko abenduaren 21eko 6/2010 Zirkularrak, Inbertsio Kolektiboko Erakundeen tresna deribatuak eragiketei buruzkoak, ezartzen duenari jarraikiz, Sozietateak ez badu inbertsioak egiten dituen Inbertsio Kolektiboko Erakundeen deskonposizioa egin erreferentzia gisa hartzen dituen esposizioen arabera (Zirkular horren 6.5 Arauan ezarritakoari jarraikiz), posizio horiek gainerakoetatik aparteko azpiko edo arrisku-faktore gisa hartu behar ditu. Horregatik, Sozietateak besteak beste "Konpromiso-kontuak" epigrafean sartzen ditu posizio horiek, betiere Sozietateak horren inguruko informaziorik badu.

#### **j) Atzerri-dirua**

Altxortegiari, zordunketei edo kredituei dagozkien diruzko partidetarako, kanbio-aldeak, positiboak zein negatiboak, "Kanbio-aldeak" epigrafean jasotzen dira galdu-irabaziekin kontuan.

Finantza-tresnen zorroa osatzen duten diruzko eta ez-diruzko gainerako kontu-sailletarako, batera tratatzen dira kanbio-aldeak eta balorazioaren ondoriozko galdu-irabaziak.

#### **k) Partaidetzen likidazio-balioa**

Fondoa osatzen duten partaidetzen likidazio-balioa kalkulatzeko, haren ondarea zehazten da, Balore Merkatuko Komisio Nazionalaren 2008ko azaroaren 26ko 6/2008 Zirkularrean eta ondorengo aldakuntzetan ezarritako irizpideak erabiliz.

#### **l) Harpidetzak eta itzultzeak**

Partaidetzen harpidetzak edo itzultzeak benetan harpidetu edo itzultitako kopuruarekin kontabilizatzen dira, eta Fondoaren balantzeko pasiboko "Partaideak" atalean ordaindu edo zordundu, kasuan kasukoa.

Fondoaren Gestio Erregelamenduari jarraikiz, interesdunak eskaera egin duen eguneko likidazio-balioarena izango da partaidetzen prezioa, eta horrela finkatuko dira bai harpidetu nahiz itzultitako partaidetzen kopurua, bai dagokionean itzuli beharreko eskudirua.

#### **m) Mozkinen gaineko zerga**

Mozkinen gaineko zergaren ondoriozko gastua galdu-irabazien kontuan adierazten da, eta, zenbatekoa kalkulatzeko, zerga-oinarriaren eta geroagoko epealdietan eragina izango duen zerga aplikatu aurreko kontabilitate-emaiztaren arteko aldeak hartzen dira kontuan.

Zerga geroratuen ondoriozko pasiboak beti jasotzen dira kontabilitatean; zerga geroratuen aktiboak, berriz, erakundeak etorkizunean irabazi fiskalak izateko eta, ondorioz, aktibook aplikatzeko aukerak daudenean soilik jasotzen dira kontabilitatean.

Galera fiskalen ondorioz hurrengo ekitaldietan konpentsatu beharreko eskubideek ez dakarte berekin, inolaz ere, aktibo bat geroratutako zergaren arabera aitortzea, eta gastua likidazio-balioaren kalkularen maiztasunez zergaren arabera konpentsatuz aitortzen dira soilik. Konpentsa daitezkeen galera fiskalak "Oroipen-kontuak - Konpentsatu beharreko galera fiskalak" epigrafean jasotzen dira.

#### **4. ZORDUNAK**

Hona hemen epigrafe horren banakapena, 2018ko abenduaren 31n:

	<b>2018</b>
Berme-gordailuak	27 022,43
Administrazio publikoak zordun	2 462,63
Likidatzeko dauden eragiketak	2 953,04
Beste batzuk	758,79
	<hr/>
	<b>33 196,89</b>
	<hr/>

“Zordunak - Berme-gordailuak” atalaren barruan, ekitaldia amaitzean indarrean zeuden finantza-geroko bizen posizioen berme gisa eraturako gordailuen 2018ko abenduaren 31ko balioa dago jasota.

2018ko abenduaren 31ko “Administrazio publikoak zordun” atalak 2018ko ekitaldian zehar finantza-inbertsioen zorroko interesen gainean eta kapital higigarriko beste errendimendu batzuen gainean Fondoari egindako atxikipenak (2.462,63 eurokoak) jasotzen ditu.

2018ko abenduaren 31ko “Zordunak - Likidatzeko dauden eragiketak” atalean, ekitaldi horretako azken egunetan likidatzeko dauden dibidenduen zenbatekoa (2.909,84 eurokoa) dago jasota. Dibidendu horiek 2019ko urtarrileko lehen egunetan likidatu dira.

#### **5. HARTZEKODUNAK**

Hona hemen epigrafe horren banakapena, 2018ko abenduaren 31n:

	<b>2018</b>
Beste batzuk	52 490,73
	<hr/>
	<b>52 490,73</b>
	<hr/>

“Hartzekodunak - Beste batzuk” atalean, 2018ko urtarrilaren 15etik 2018ko abenduaren 31ra bitarteko epealdia ixtean ordaintzeko dauden gestio- eta gordailuzaintza-komisioen zenbatekoa jaso da, batez ere.

2018ko urtarrilaren 15etik 2018ko abenduaren 31ra bitarteko epealdian, Fondoak ez du legez ezarritakotik gorako geroratzetik duen ordainketarik egin. Era berean, 2018ko urtarrilaren 15etik 2018ko abenduaren 31ra bitarteko epealdia ixtean, Fondoak ez du legeak ezarritako epea gainditzen duen geroratzedun saldorik ordaintzeko.

## 6. FINANTZA-INBERTSIOEN ZORROA

Honako hau zen Fondoaren balore-zorroa ekitaldiaren amaieran, aktibo motaren arabera:

	2018
<b>Barruko zorroa</b>	<b>1 500 000,00</b>
Zorra adierazten duten baloreak	1 500 000,00
<b>Kanpoko zorroa</b>	<b>23 413 827,60</b>
Inbertsio Kolektiboko Erakundeak	23 413 827,60
	<b><u>24 913 827,60</u></b>

Txosten honekin batera doazen I. eta II. eranskinetan, Fondoaren finantza-inbertsioen zorroak eta deribatuetan egindako inbertsioek 2018ko abenduaren 31n duten osaera zehaztu da.

2018ko abenduaren 31n, finantza-inbertsioen zorroko titulu guztiak Caja Laboral Popular Coop. de Crédito eta Banco Inversis SAn daude gordailututa.

## 7. ALTXORTEGIA

Honako hau zen epigrafe horren osaera 2018ko ekitaldiaren amaieran:

	2018
Erakunde Gordailuzaineko kontuak	246 916,24
Altxortegiko beste kontu batzuk	59 914,17
	<b><u>306 830,41</u></b>



2018ko abenduaren 31ko "Gordailuzaineko kontuak" atalean, Fondoak Gordailuzainean dituen kontu korranteetako saldoa dago jasota. Kontu korrante horiek % 0ko interes-tasa jaso dute.

2018ko abenduaren 31ko "Altxortegiko beste kontu batzuk" atalak hurrenez hurren Cecabank SAko kontu korranteko saldoa biltzen du, batik bat. Horren bidez, deribatuekiko eragiketak egiten dira.

## **8. PARTAIDEEI ESLEITUTAKO ONDAREA**

Fondoaren partaidetza guztiak balio nominalik gabeko izendun ziurtagiri bidez daude ordezkaturata, eta horiek ondarearen gaineko jabetza-eskubidea ematen diete jabeei.

Honela finkatu da partaidetza bakoitzaren likidazio-balioa:

	<b>2018</b>
Partaideei esleitutako ondarea	<u>25 201 364,17</u>
Jaulkitako partaidetza-kopurua	<u>4 582 662,96</u>
Partaidetzaren likidazio-balioa	<u>5,50</u>
Partaide-kopurua	<u>1 838</u>

2018ko urtarrilaren 15etik 2018ko abenduaren 31ra arteko epealdian partaideei egotzi zaien ondareko mugimendua ondare garbiaren aldaketan egoera-orrian jaso da.

2018ko urtarrilaren 15etik 2018ko abenduaren 31ra bitarteko epealdiko emaitza, mozkinen gaineko zerga aintzat hartu ostean, Fondoko "Partaideak" kontuan banatuko da.

2018ko abenduaren 31n, ez dago % 20tik gorako partaidetza duen partaiderik. Hortaz, Inbertsio Kolektiboko Erakundeen 1082/2012 Errege Dekretuaren 31. artikulua araberara, ez dago partaidetza nabarmenik.

## 9. KONPROMISO-KONTUAK

Txosten honekin batera doan II. eranskinean, Fondoaren deribatuetan egindako inbertsioen zorroak 2018ko abenduaren 31n zuen osaera zehaztu da.

## 10. BESTE OROIPEN-KONTU BATZUK

Hona hemen epigrafe horren banakapena, 2018ko abenduaren 31n:

	<b>2018</b>
Beste batzuk	<u>2 722 173,14</u>
	<u><b>2 722 173,14</b></u>

## 11. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK ETA EGOERA FISKALA

2018ko eta 2017ko ekitaldian zehar, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2014ko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergari buruzkoak, arautu du Fondoaren erregimen fiskala, hain zuzen ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren 1996ko uztailearen 4ko 7/1996 Foru Araua, sozietateen gaineko zergari buruzkoa, eta ondorengo aldakuntzak indargabetu zituenetik. 2018ko eta 2017ko ekitaldian zehar, Fondoak 100eko leko karga-tasa izan du sozietateen gaineko zergan, betiere 35/2003 Legearen bosgarren eta bederatzigarren artikuluetan eta ondorengo aldakuntzetan adierazten diren partaideak baditu gutxienez.

Gainera, 2/2014 Foru Arauaren aldakuntza horiek direla eta, 2018ko ekitaldian aplikatzekoak diren eta aurreko ekitaldian datozen zerga-oinarri negatiboen, likidatu edo autolikidatu direnen, konpentsazioa, konpentsazio hori egin aurreko zerga-oinarri positiboaren % 50ekoa izango da, gehienez. Muga % 70ekoa izango da Foru Arau horren 13. artikuluan zehaztutako mikroenpresentzat eta enpresa txikiarentzat.

2018ko abenduaren 31n, Fondoak ez du aurreko ekitaldian zerga-oinarri negatiborik konpentsatu gabe.

Ez dago alde nabarmenik ekitaldiko zerga aurreko kontabilitate-emaitzaren eta sozietateen gaineko zerga-oinarriaren artean.

Indarrean dagoen legediaren arabera, Fondoari dagozkion zergak ezin dira behin betikotzat jo, harik eta agintari fiskalek ikuskatzen dituzten arte edo lau urteko preskripzio-epaia iragan arte.

Fondoak ikuskatzeko prest ditu eratu zenetik dagozkion zerga guztiak.

Ez dago agintari fiskalen ikuskaritzaren ondorioz gorabehera nabarmenik sortzeko arriskurik.

## **12. BESTELAKO INFORMAZIOA**

Sozietate Gestoreak 35/2003 Legearen 67. artikuluan eta ondorengo aldakuntzetan eta 1082/2012 Errege Dekretuaren 139. artikuluan eta ondorengo aldakuntzetan aurreikusitako eragiketa lotetsiak egiten ditu Fondoaren kontura. Horretarako, interes-gatazkak saihesteko eta eragiketa lotetsiak Fondoaren interesari erreparatuz eta merkatu-prezioetan egiten direla bermatzeko prozedurak erabiltzen ditu. Aldian behin egin beharreko txostenetan, egindako eragiketa lotetsien informazioa txertatzen da, CNMVren 4/2008 Zirkularrean eta ondorengo aldakuntzetan araututakoari men eginez. Gainera, Sozietate Gestorearekin edo horri lotutako beste pertsona nahiz erakunde batzuekin Fondoaren kontura egindako eragiketa lotetsiak ere jasotzen ditu, eta horien izaeraren, arriskuen eta zereginen berri ematen du.

Beste alde batetik, "Jarduera eta arriskuaren gestioa" oharrean, Sozietate Gestorearen Taldekoak diren erakundeek gestionatutako Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan jatorria duten ostera-lagatako komisioen zenbatekoa jasotzen da, baldin eta 2018ko urtarrilaren 15etik 2018ko abenduaren 31ra arteko epean sortu badira.

Gordailuzainarekin egiten dituen eragiketei dagokienez, "Altxortegia" oharrean Fondoak Gordailuzainarekin dituen kontuen berri eman da, eta, l. eranskinean, 2018ko abenduaren 31n Gordailuzainarekin egindako aktiboen aldi baterako eskurapenak jaso dira.

Erakundeak ez duenez ez langilerik ez bulegorik, eta bere izaera kontuan hartuta Inbertsio Kolektiboko Erakundeak Gestionatzeko Sozietate batek gestionatu behar duenez, ingurumena babesteari eta langileen segurtasuna eta osasuna zaintzeari buruzko gaiak Sozietate Gestoreari bakarrik aplikatzen zaizkio.

PricewaterhouseCoopers Auditores SLk 2 mila euroko zerbitzu-sariak jaso ditu 2018ko urtarrilaren 15etik 2018ko abenduaren 31ra arteko epealdiko urteko kontuen auditoretza egiteagatik.

I. eranskina. Finantza-inbertsioen zorroa, 2018ko abenduaren 31koa (Eurotan adierazita)

Barruko zorroa	Dibisa	Hasierako balioztapena	Interesak	Arrazoizko balioa	(Minusbaldia) / Gainbalioa
<b>Aktiboen aldi baterako eskurapena Gordailuzainarekin</b>					
REPOAL LABORAL KUTXA 2019-01-02	EUR	1 500 000,00	-	1 500 000,00	-
<b>Aktiboen aldi baterako eskurapena Gordailuzainarekin GUZTIRA</b>		<b>1 500 000,00</b>	<b>-</b>	<b>1 500 000,00</b>	<b>-</b>
<b>Barruko zorroa GUZTIRA</b>		<b>1 500 000,00</b>	<b>-</b>	<b>1 500 000,00</b>	<b>-</b>

Kanpoko zorroa	Dibisa	Hasierako balioztapena	Interesak	Arrazoizko balioa	(Minusbaldia) / Gainbalioa
<b>Zuzendaritzaren akzioak eta partaidetzak</b>					
PARTDAIDETZAK FRANKL IND F ACC	EUR	526 981,82	-	436 844,41	(90 137,41)
PARTDAIDETZAK THREADNEEDLE	EUR	814 371,62	-	702 702,11	(111 669,51)
PARTDAIDETZAK FIDELITY FGLOB****	EUR	570 319,39	-	586 811,17	16 491,78
PARTDAIDETZAK FIDELITY FGLOB****	EUR	518 626,47	-	468 008,32	(50 618,15)
PARTDAIDETZAK ISHARES	EUR	624 986,81	-	566 616,98	(58 369,83)
PARTDAIDETZAK AMUNDI	EUR	275 734,56	-	244 179,50	(31 555,06)
PARTDAIDETZAK T ROWE FUNDS	EUR	801 161,38	-	701 462,35	(99 699,03)
PARTDAIDETZAK SCHRODER ISF EUR DI	EUR	1 142 991,75	-	1 064 146,61	(78 845,14)
PARTDAIDETZAK FIDELITY FGLOB****	EUR	1 159 953,26	-	1 059 640,97	(100 312,29)
PARTDAIDETZAK SCHRODER ISF EUR DI	EUR	1 020 446,05	-	939 786,67	(80 659,38)
PARTDAIDETZAK AMUNDI	EUR	352 611,60	-	339 653,02	(12 958,58)
PARTDAIDETZAK NN Investment Partners Luxembourg	EUR	402 269,27	-	355 520,46	(46 748,81)
PARTDAIDETZAK UBS AG	EUR	385 962,93	-	352 061,46	(33 901,47)
PARTDAIDETZAK UBS AG	EUR	624 265,37	-	580 854,26	(43 411,11)
PARTDAIDETZAK FIDELITY CHINA CONS	EUR	406 227,37	-	340 317,52	(65 909,85)
PARTDAIDETZAK AMUNDI	EUR	400 069,28	-	355 742,50	(44 326,78)
PARTDAIDETZAK ISHARES	EUR	1 157 038,30	-	1 039 759,01	(117 279,29)
PARTDAIDETZAK AMUNDI	EUR	498 528,78	-	464 651,65	(33 877,13)
PARTDAIDETZAK LYXOR ETF	EUR	438 317,37	-	413 390,44	(24 926,93)
PARTDAIDETZAK LYXOR ETF	EUR	387 045,99	-	353 187,96	(33 858,03)

Kanpoko zorroa	Dibisa	Hasierako balloztapena	Interesak	Arrazoko balloa	(Minusbailloa / Gainballoa)
PARTAIDETZAK, LYXOR EIF	EUR	537 523,31	-	475 641,76	(61 881,55)
PARTAIDETZAK, ISHARES	EUR	508 764,75	-	455 965,23	(52 799,52)
PARTAIDETZAK, ISHARES	EUR	546 100,82	-	463 535,19	(82 565,63)
PARTAIDETZAK, NORDEA BANK AD	EUR	1 034 597,68	-	928 631,75	(105 965,93)
PARTAIDETZAK, BROCK EUR VAL A2****	EUR	578 367,47	-	599 753,39	21 385,92
PARTAIDETZAK, ABERDEEN GLOB A2 **	EUR	393 435,82	-	356 123,91	(37 311,91)
PARTAIDETZAK, MORGAN STANLEY	EUR	493 589,64	-	454 741,51	(38 848,13)
PARTAIDETZAK, PICTET INDIAN **	EUR	371 902,00	-	341 697,36	(30 204,64)
PARTAIDETZAK, PETERCAM L BUNDS EUR	EUR	390 253,32	-	351 192,77	(39 060,55)
PARTAIDETZAK, JPM EUR STRAT DIV	EUR	550 785,83	-	470 848,24	(79 937,59)
PARTAIDETZAK, SCHRODER ISF EUR DI	EUR	278 667,34	-	250 408,55	(28 258,79)
PARTAIDETZAK, FRANKL IND F ACC	EUR	400 518,46	-	381 602,09	(18 916,37)
PARTAIDETZAK, NN Investment Partners Luxembourg	EUR	283 456,95	-	240 157,14	(43 299,81)
PARTAIDETZAK, FRANKL IND F ACC	EUR	809 783,02	-	693 743,64	(116 039,38)
PARTAIDETZAK, PARIBAS	EUR	263 271,32	-	236 075,17	(27 196,15)
PARTAIDETZAK, PICTET INDIAN **	EUR	257 593,00	-	233 336,95	(24 256,05)
PARTAIDETZAK, INVESCO GLOBSTR E	EUR	136 644,00	-	116 272,08	(20 371,92)
PARTAIDETZAK, PICTET INDIAN **	EUR	401 006,34	-	349 830,92	(51 175,42)
PARTAIDETZAK, ALLIANZ EUR EOY GR	EUR	664 320,77	-	578 503,91	(85 816,86)
PARTAIDETZAK, PA DWS INV CONVERT	EUR	510 916,73	-	427 263,89	(83 652,84)
PARTAIDETZAK, PA DWS INV CONVERT	EUR	525 724,08	-	466 517,14	(59 206,94)
PARTAIDETZAK, SCHRODER ISF EUR DI	EUR	368 013,82	-	335 015,57	(32 998,25)
PARTAIDETZAK, HEN HOR FD EQ *****	EUR	905 656,07	-	771 265,33	(134 390,74)
PARTAIDETZAK, BROCK EUR VAL A2****	EUR	276 368,73	-	241 802,83	(34 565,90)
PARTAIDETZAK, AXA SA	EUR	404 829,24	-	347 384,71	(57 444,53)
PARTAIDETZAK, PA DWS INV CONVERT	EUR	489 864,37	-	460 735,29	(29 129,08)
PARTAIDETZAK, PICTET INDIAN **	EUR	260 392,00	-	224 251,29	(36 140,71)
PARTAIDETZAK, PARIBAS	EUR	257 619,23	-	234 531,74	(23 087,49)
PARTAIDETZAK, JPM EUR STRAT DIV	EUR	610 539,00	-	561 660,88	(48 878,12)
<b>Zuzendaritzaren akzioak eta partaidetzak GUZTIRA</b>		<b>26 018 414,48</b>	-	<b>23 413 827,60</b>	<b>(2 604 586,88)</b>
<b>Kanpoko zorroa GUZTIRA</b>		<b>26 018 414,48</b>	-	<b>23 413 827,60</b>	<b>(2 604 586,88)</b>

## II. eranskina. Deribatuetako inbertsioen zorroa, 2018ko abenduaren 31koa (Eurotan adierazita)

Azalpena	Dibisa	Nominal konpromettua	Arazoizko balioa	Kontratuaren muga-eguna
<b>Erositako etorkizunak</b>				
GEROKOA, MSCIWUSDTR % 1 2019-03-15	USD	432 937,68	423 686,51	2019-03-15
<b>Erositako geroak GUZTIRA</b>		<b>432 937,68</b>	<b>423 686,51</b>	
<b>Beste erosketa-konpromiso batzuk</b>				
PARTAIDETZAK, AMUNDI	EUR	339 653,02	339 653,02	-
PARTAIDETZAK, PICTET INDIAN **	EUR	136,68	341 697,36	-
PARTAIDETZAK, PETERCAM L BUNDS EUR	EUR	351 192,77	351 192,77	-
PARTAIDETZAK, JPM EUR STRAT DIV	EUR	470 848,24	470 848,24	-
PARTAIDETZAK, SCHRODER ISF EUR DI	EUR	245 400,38	250 408,55	-
PARTAIDETZAK, PA DWS INV CONVERT	EUR	939,98	427 263,89	-
PARTAIDETZAK, PA DWS INV CONVERT	EUR	17 139,35	460 735,29	-
PARTAIDETZAK, T ROWE FUNDS	EUR	1 683,51	701 462,35	-
PARTAIDETZAK, SCHRODER ISF EUR DI	EUR	21 282,93	1 064 146,61	-
PARTAIDETZAK, PICTET INDIAN **	EUR	34,98	349 830,92	-
PARTAIDETZAK, UBS AG	EUR	580 854,26	580 854,26	-
PARTAIDETZAK, ISHARES	EUR	1 039 759,01	1 039 759,01	-
PARTAIDETZAK, AMUNDI	EUR	355 742,50	355 742,50	-
PARTAIDETZAK, AMUNDI	EUR	244 179,50	244 179,50	-
PARTAIDETZAK, AMUNDI	EUR	464 651,65	464 651,65	-
PARTAIDETZAK, LYXOR ETF	EUR	413 390,44	413 390,44	-
PARTAIDETZAK, LYXOR ETF	EUR	353 187,96	353 187,96	-
PARTAIDETZAK, LYXOR ETF	EUR	475 641,76	475 641,76	-
PARTAIDETZAK, ISHARES	EUR	455 965,23	455 965,23	-
PARTAIDETZAK, ISHARES	EUR	463 535,19	463 535,19	-
PARTAIDETZAK, ISHARES	EUR	566 616,98	566 616,98	-
PARTAIDETZAK, FRANKL IND F ACC	EUR	873,69	436 844,41	-
<b>Beste erosketa-konpromiso batzuk GUZTIRA</b>		<b>6 862 710,01</b>	<b>10 607 607,89</b>	
<b>GUZTIRA</b>		<b>7 295 647,69</b>	<b>11 031 294,40</b>	

## Laboral Kutxa Futur, I.F.

Caja Laboral Gestion SGIC SArean administratzaileak 2019ko martxoaren 29an bildu dira, eta, indarrean dagoen legedia betez, Laboral Kutxa Futur, Inbertsio Fondoaren urteko kontuak eta kudeaketa-txostena (2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldikoak) egin dituzte. Kontu eta txosten horietan, idazki honen aurreko dokumentuak sartzen dira, alegia, honako hauek:

- a) Balantzea, galdu-irabazien kontua eta ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, 2018ko urtarrilaren 15etik 2018ko abenduaren 31ra arteko epealdikoak.
- b) Urteko kontuen txostena, 2018ko urtarrilaren 15etik 2018ko abenduaren 31ra arteko epealdikoa.
- c) Kudeaketa-txostena, 2018ko urtarrilaren 15etik 2018ko abenduaren 31ra arteko epealdikoa.

### SINATZAILEAK:




José Carlos Maza  
Lehendakaria



Maria Carmen Urrutia  
Kidea



Beñat Herce Leceta  
Kidea



Aitor García  
Idazkaria



**LABORAL**  
kutxa